

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA - 2016

Joan den ekainaren 28an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren Kontuaren fiskalizazio txostena onartu du, 2016ko ekitaldikoa.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, salbuespenik gabe.

2015ean bezalaxe, **finantza egoerak** bilakaera positiboa izan du 2016an ere. **Aurrezki gordinak** gora egin du, **sarrera arruntak** gastu arruntak baino **handiagoak izan direlako**, batik bat Foru Aldundien ekarpenak. Izan ere, besteak beste, osasun eta hezkuntzako gastuak gehitu dira, nekazaritza eta itsasoko sektoreei emandako laguntzak eta Bilboko Metroaren 3. linea eraikitzetik eratorritakoak. Berebat, inbertsio garbiek ere gora egin dute, nagusiki Gipuzkoako zatian egikaritza handiagoa izan duelako **Euskal Trenbide Sare Berriak; Ekonomia eta Lehiakortasun Saileko** Elkartek eta Emaitek programen ondorioz; eta **Inbertsioari Laguntza Finantzarioa** emateko programa berri batentzat berme funts bat eratu delako. Ekitaldiko emaitza arrunta, erabilitako zorraren bariozioarekin batera, aski izan dira inbertsio garbia finantzatzeko. Diruzaintza Geldikin Erabilgarriak gora egin du zuzkidura eta doiketek behera egin dutelako.

Txostenak dio EAEko Administrazio orokorrak **bete dituela** 2016an aurrekontuaren **egonkortasun eta zor publikoaren** helburuak; baita, **merkataritzako eragiketetan ordainketa epeak** ere (batez besteko ordainketa epea, 29 egunekoa, araudiak agintzen duen gehieneko 30 egunen azpitik). Alabaina, gastu konputagarria % 2,8 hazi da, baina 2016ko ekitaldirako muga % 1,8 zen.

Txostenak, aurreko ekitaldietan bezala, gastu eta sarrerak lurralde historikoen arabera bereziak ematen ditu, izan ere, informazio hau ez da urteko kontuetan jasotzen. 2016an aitortutako gastu guztitik, lurraldeka bereiz daitekeenetik (finantza gastuak eta zor publikoa batik bat kanpoan utzita), % 27 Arabari dagokio, % 46 Bizkaiari eta % 27 Gipuzkoari. Sarrerei dagokienez, berriz, (zor publikoari dagozkionak kenduta), % 16 Arabari dagokio, % 51 Bizkaiari eta % 33 Gipuzkoari. Ehuneko hauek bat datoz foru aldundi bakoitzak ekitaldian bildutako zerga-sarreraren ekarpen-ehunekoarekin.

Txostenak ondorioztatu du EA Eren Administrazio Orokorrek zuzentasunez bete duela ekitaldian ekonomia-finantza jardura arautzen duen lege araudia, nahiz **unean uneko salbuespenak** azaleratu dituen **administrazioko kontratazioan**: espediente baten azken ziurtagiria kontratuaren jatorrizko prezioa % 10 gairitu da; 4 milioi euroan esleitutako espediente batean lehiatik salbuestea ez da behar hainbat justifikatu; eta 4,1 milioi euroren ondasun eta zerbitzuen kontratazioak dagokion prozedura izapidetu gabe gauzatu dira. Gainera, Gobernu Kontseiluak 53,4 milioi euroren gastuak baliokidetu ditu, Ekonomia Kontrolerako Bulegoak aurkako txostena egin zuela, batik bat zerbitzuak dagokion kontratu-espedientea izapidetu gabe gauzatzeagatik).